

Irungo EAJ-PNV

Zure hirian zer gertatzen den ezagutuz

Irion



EAJ-PNV Irungo Udal Taldearen buletina 2014-04-30

Berri nabarmenak



Xabier Iridoy alkatetzarako hautagai aukeratu du aho batez EAJ-PNVko batzarrak

Irungo EAJ-PNVk Xabier Iridoy aurkeztu zuen apirilaren 16an eskaintako prentsurrekoan 2015eko udal hauteskundeetako alkatetzarako hautagai. Horrela erabaki zuen bezperan alderdiaren batzarrak, datorren urtean EAJ-PNVko zerrenda-buru izateko babesa aho batez emanda.

Talde jeltzaleko egungo udal bozeramaileak agintaldiko hiru urte hauetan egin duen oposizio eraikitzailea azpimarratu zuen Lourdes Larraza Irungo alderdiko presidenteak. Halaber, Iridoyk Irunen eta irundarren alde lan egiteko erakutsi duen seriotasun, zintzotasun eta ardura nabarmendu zituen, ekimen desberdinen bitartez, hiria hobetzeko gaitasun eta eraginkortasunarekin batera. «Xabier Iridoy elkarrizketarako irekia da, hurbila, talde lanaren defendatzailea eta langile nekazina. Freskotasuna eta kudeaketan esperientzia ekartzen ditu eta gobernu sozialistaren alternatiba izango den talde baten buru izango da. Irun gobernatzeko prest dago» baietsi zuen.

Bestalde, bere alderdiarengandik jasotako babesa eta datozen udal hauteskundeetan EAJ-PNVko zerrenda-buru izateko alderdikideek beregan jarri duten konfiantza publikoki eskertu zituen Xabier Iridoyk. «2011 urtean bezala, ilusioz eta gogo askorekin egingo diot aurre erronka garrantzitsu eta polit honi» adierazi du. «Pertsonak dira gure hiri-proiektuaren ardatz nagusiak; hain zuzen ere, ekonomiaren suspertzean eta irundarren bizi kalitatea hobetzean oinarritutako hiri-proiektuarenak. Hiru urteotan hiri-proiektu horretan oinarritutako hainbat ekarpen eta proposamen egin ditugu, eta norabide horretan lanean jarraituko dugu» ziurtatu zuen.

Udaletxean egindako lanaren baitan, kalean, hiritarrei entzunez eta beren behar eta arazoei irtenbidea emanaz, agintaldi honetan egindako lana nabarmendu zuen Iridoyk. «Une oro, hiritarren zerbitzura egoten ahalegindu naiz, oposiziotik ditugun aukera eta eskumenen barruan nire babesa eta laguntza erakutsiz». Horretaz gain, jeltzaleak egiten ari diren talde-lana azpimarratu zuen eta udaletxetik kanpoko lana eta zinegotziarena uztartuz EAJ-PNVko hautetsiek erakutsi duten prestutasuna eta konpromisoa goraiatu zituen.

Azkenik, hiriaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen Iridoyk. «Ohorea da niretzat Irunen alde lan egitea eta EAJ-PNVn prest gaude horretarako» amaitu zuen hautagai jeltzaleak.



Irundarren ongizatearen hobekuntzan eta ekonomiaren suspertzean oinarritutako hiri-proiektua aurkeztu du Iridoyk

Xabier Iridoy EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak EAJ-PNVren hiri-proiektuaren lerro nagusiak aurkeztu zituen joan den apirilaren 24ean eskaintako prentsurrekoan. «Joan den astean aurreratu genuen bezala, pertsonak dira gure proiektuaren ardatz nagusi eta testuinguru ekonomiko zail honetan beren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzearen alde lan egingo dugu. Oso gogoan dugu Irunen langabezia tasa %18,4-koa dela, 5.399 langabaturekin, eta horregatik, enpleguak eta ekonomiaren suspertzeak lehentasuna dute gure hiri-proiektuan» adierazi zuen zinegotzi jeltzaleak. Horren harira, EAJ-PNVk konpromiso argia du ekonomiaren berrindartzean. «Udalak gehiago inbertitu beharko lukeela deritzogu,

mugimendu ekonomikoa sortzeko, tokiko ekonomiaren dinamizazioan funtsezko pieza dela uste baitugu» baietsi zuen tokiko enpresei esleitu daitezkeen obra txikiei erreferentzia eginez. Halaber, hiri-merkataritza eta honek betetzen duen funtzio soziala babeste aldera, elkarlan publiko-pribatuaren aldeko apustua egin zuen Iridoyk.

Hiria behar berrietara egokitzearen eta irundarren bizi kalitatea hobetzearen garrantzia azpimarratu zuen Iridoyk. «Pertsonak gure hiri-proiektuaren ardatz badira, ezinbestekoa da haiekin hurbileko harremana izatea, beren beharrak entzun eta eskaerei erantzunak eskaintzeko. Ez du zertan obra handirik izan behar; askotan, esku-hartze txikiek hiritarren eguneroko bizitza nabarmen hobetzen dute». Zentzu horretan, EAJ-PNVk auzoekin duen konpromisoa ekarri zuen gogora, eta eremu degradatuak berreskuratzeko, eta mugikortasuna, irisgarritasuna, aparkaleku arazoa, ekipamendu falta eta segurtasun gabezia –hala puntu beltzetan, nola bestelako gaietan; hobetzeko proposamenak egiten jarraituko duela adierazi zuen.

Azkenik, proiektu irekia, dinamikoa eta parte-hartzailea dela azaldu zuen bozeramaile abertzaleak. «Gizartean ematen diren etengabeko aldaketek proiektua sortzen diren beharretara egokitzera derrigortzen gaituzte, eta gainera, gure ideiak irundarrekin eta hiriko gizarte eragile desberdinekin kontrastatu eta partekatu nahi ditugu». Gauzak horrela, EAJ-PNVk "0 proiektua" prestatu du eta auzo, kultur, kirol elkarteekin jada lanean hasi da, aurkeztutako proiektuari erantzunez sortzen diren planteamenduak entzuteko xedearekin. «Behin betiko proiektua egiteko fase hau ezinbestekoa dela uste dugu. Jada, elkarteekin bilera batzuk egin ditugu, non gure proiektua aurkeztu diegun eta beren iritzi eta ekarpenak helarazi dizkiguten. Horiek guztiak kontuan izango ditugu azkeneko proiektua egiteko orduan» amaitu zuen Xabier Iridoyk.



Belasko Eraikineko lantegi eta enpresa txikiak bisitatu ditu Xabier Iridoyk

Joan den astelehenean, Xabier Iridoyk, Irungo EAJ-PNVko Uri Buru Batzarreko ordezkariarekin batera, Belasko Eraikineko hainbat lantegi eta enpresa txiki bisitatu zituen. Bozeramaile jeltzaleak adierazitakoaren arabera, Belasko Enea eremu garrantzitsua da industriari dagokionez. Belasko Eraikinak, gaur egun, ehun enpresa txiki baino gehiago biltzen ditu, ezbairik gabe tokiko ekonomia dinamizatzen dutenak. Momentu zailak dira guztiontzat, baita beraiantzat ere, krisiari aurre eginez gogor ari baitira lanean.

Hain zuzen ere, eremu horretako enpresen errealitatea ezagutzeko, bisitaldiaren aurretik Belasko Eraikineko Jabeen Komunitateko presidentearrekin bildu zen. Gune hori garai berrietara egokitzeko eta birordenatzeko beharra egiaztatzeaz gain, Iridoyk EAJ-PNVren "0 proiektuan" ageri diren planteamenduak aurkeztu eta egin zitzaizkion ekarpen eta iritziak jaso zituen.

Ekonomiaren suspertzea eta enplegua EAJ-PNVren hiri-proiektuaren ardatz nagusiak dira, eta zentzu horretan, ezinbestekoa da etengabeko aldaketak ematen diren une honetan sortutako beharrak ezagutzea. Joan den astean udal bozeramaileak eskaintako prentsaurrekoan iragarri zuen bezala, EAJ-PNV hasi da, jada, bere hiri proiektua hiriko hainbat eragilarekin kontrastatzen, eta Belasko Enean egindako bilera eta bisitaldiarekin urrats bat gehiago eman da helburu horren lorpenean.



Txingudi Badiako hiru udalerrriak bizikleta bidez lotzeko planari babesa eman diezaion eskatuko dio EAJ-PNVk Foru Aldundiari

Irungo EAJ-PNV Udal Taldeak mozioa aurkeztuko du apirilko ohiko Udalbatzan Hendaia eta Hondarribia lotuko dituen bizikleta bidearen planean Gipuzkoako Foru Aldundia inplikatu dadin eskatuz. Xabier Iridoy bozeramaile jeltzalearen hitzetan, «Txingudi badiako hiru udalerrriak lotuko dituen proiektua garrantzitsua da, eta erakunde guztiek Irungo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestu behar dutela deritzogu». Gainera, Hondarribia eta Hendaia hondartzak gure hiriaren bitartez lotuz eta Irungo auzoen arteko lotura erraztuz, proiektuak Irungo eta eskualdeko mugikortasunean ekarriko duen aurrerapena azpimarratu du.

Joan den ostiraleko hiriaren egoerari buruzko eztabaidan, Udalbatzak plan honekin lotutako bi ebazpen proposamen onartu zituela gogorarazi du Iridoyk: bat bizikleta bidearen proiektuari jarraipena emateko, Eusko Jaurlaritzari 2015eko aurrekontuetan diru-partida jar dezan

eskatuz, eta bestea Irungo Udalarri datorren urteko udal-aurrekontuetan partida bat eskainiz, ekimenari babesa emateko premiatuz. Horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundia ere proiektuan inplikatzeko beharra baietsi du Iridoyk, Gipuzkoako lurralde osoan bizikleta-bideen arloan eskumena duen erakundea baita. «Irungo Udalarri babesa eskatu genion bezala, plan honetarako aurrekontu-partida aurreikus dezan eskatuko diogu Aldundiari. Hain zuzen ere, proiektuaren erredakzioa eta exekuzioa berari dagokio» azaldu du Iridoyk.

EAJ-PNVk Txingudi badiako hiru herriak lotzeko proiektuaren alde egin du hasieratik. Horren adibide da Eusko Jaurlaritzak urte honetarako bideratu duen 500.000 euroko aurrekontu-saila. Halaber, Ana Oregi Lurralde Politika eta Ingurumen arloko Sailburuak berriki Legebiltzarrean egindako agerraldian Txingudiko eremuaren aldeko apustua berretsi du, eta, bereziki, Hendaia eta Hondarribia lotzeko bizikleta bidearen alde azaldu da. «Eusko Jaurlaritzak, jada, proiektua interes handikoa dela adierazi du, batez ere, Eurovelo sarean sartuta dagoelako» jarraitu du Iridoyk.

Azkenik, erakunde guztietatik norabide berean lan egiten badugu, Txingudi badiako oinezkoen eta bizikletentzako bidearen proiektua errealitate bilakatuko dela adierazi du Xabier Iridoyk eta «hori onuragarria da Iruntzat eta Bidasoako eskualdearentzat».

Buletin honetan ere...



Ventasen Renfeko tren geltokia eraberritzeko proiektuaren esleipenari buruz galdetu dio Senatuan EAJ-PNVk Pastor ministroari

Maria Eugenia Iparragirre senatari eta Sustapen batzordeko EAJ-PNVko bozeramaileak, Irungo Ventas auzoko tren geltokia eraberritzeko proiektuaren esleipenaren inguruan gobernuak aurreikusten dituen epeei buruz galdetu zion joan den apirilaren 8an Ana Pastor Sustapen ministroari.

Iparragirrek adierazi zuenez, "bertako bizilagunek hamar urte baino gehiago daramate irtenbide bat eskatzen". 2011ko apirilaz geroztik Irundik behin eta berriro egin diren hainbat eskaera gogora ekarri zituen senatari jeltzaleak, eta erantzunik ezaren aurrean, esku-hartze hori egiteko premia azpimarratu zuen, "are gehiago, hain garestia ez den proiektu batez ari garenean".

Pertsonen eguneroko bizitza hainbeste aldatu dezaketen proiektu txikiak urteetan zehar kajoji batean, irtenbiderik eman gabe, zergatik geratzen diren galdetu zuen Maria Eugenia Iparragirrek. Halaber, pertsonengan oinarritutako politika egitea eta horrelako proiektuak sustatzea eskatu zuen. "Ez dira aurrekontu-partida handiak behar, eta pertsonen bizi kalitatea hobetzen dute" baietsi zuen EAJ-PNVko senatariak.

Bestalde, Ana Pastorren erantzun baikorra jaso zuen Iparragirrek, esleipen data ekainerako zehaztuz. Geltokian egingo diren hobekuntzak aipatu zituen Pastorrek, besteak beste: lehenengo nasarako sarbidea hobetzea, nasetako trenbide-pasagunea lekuz aldatzea, ertzak iragazgaitzak izan daitezen moldatzea, zoladura irisgarritasun araudira egokitzea eta hala ez dagoen kasuetan, hiru metroaraino zabaltzea.



EAJk erakundeen arteko adostasun zabal baten aldeko apustua egin du gizarte politikak indartzeko helburuarekin

Joan den apirilaren 26an, Gipuzkoako EAJ-PNVk gizarte politiken etorkizunari buruzko jardunaldia antolatu zuen Prest ekimenaren baitan Miramongo teknologia parkean. Irungo EAJko hainbat ordezkari hartu zuten parte bertan, besteak beste, Xabier Iridoy eta Jose Corchon zinegotzi jeltzaleek. Halaber, Lander Ugartemendia alderdikide eta gizarte hezitzaile irundarrak arlo horretan duen esperientzia partekatu zuen bertaratutakoekin.

EAJk alderdi humanista bezala bere sorreratik egindako apustua berretsi zuen beste behin ere, gizarte politiken alde egin eta pertsonak jarduera politikoaren erdian kokatuz. "Krisi ekonomiko benetan larria bizi dugu: Gero eta pertsona gehiago daude larritasun egoeran eta baliabideak gero eta urriagoak dira", adierazi zuen Eider Mendoza batzarkide gipuzkoarrak. Bizi dugun egora larriaren aurrean, Mendozak gainerako alderdiei eskatu zien "kritika politikoa alde batera utzi eta adostasun orokorra lortzeko ahalegina" egin zezaten Euskadiren gizarte azpiegitura bermatzeko helburuarekin. Ildo horretan, gizarte moduan eta banaka "ahalegin solidarioa" egin beharko genukeela nabarmendu zuen, modu horretan pertsonen lehenetsun

guztien gainera egoten jarrai dezaten.

Mendozak azaldu zuen bezala, azken lau hamarkadetan EAJk gizarte politiken aldeko apustu garbia egin du eta horrek Gipuzkoa "eredu" bilakatzea ahalbidetu du. "Harro gaude sortu dugun sistemarekin, baina orain indartu egin behar dugu bere etorkizuna bermatzeko", erantsi zuen.

Helburu horrekin, jarduera ekonomikoaren alde egitearen beharra ere jarri zuen mahai gainean. Izan ere, diru sarrerarik gabe, ezinezkoa litzateke gizarte politikak bermatzea. Mendozak egungo egoera islatzen duten hainbat datu plazaratu zituen: "2011. urtean Eusko Jaurlaritzak 9.316 milioi izan zituen gizarte politikak burutzeko, urte bat lehenago baino 1.132 milioi gutxiago. Eta hori guztia arreta behar zuten 21.000 familia gehiagorekin".

"70-80 hamarkadetako krisian EAJk asmatu egin zuen pertsonak politika guztien erdian jarri zituenean jarduera ekonomiarekin konbinatuta. Modu horretan gizarte politikak bermatzeko baliabideak lortu dira eta, hori gabe, Herri hau askoz ere pobreagoa izango zatekeen. Orain, apustu horri berresteko garaia da alderdi eta erakunde ezberdinen arteko adostasun baten bidez", ziurtatu zuen.

Hori esanda, Mendozak gonbitea luzatu zien gainerako indar politiko eta erakundeei adostasun hori lortu eta Euskadik daukan gizarte azpiegitura bermatzeko, hau da, gainerako Estatuarengandik ezberdintzen gaituen egoera mantentzeko, alegia. "Eredua gara eta hala izaten jarraitu behar dugu. Ahalegin kolektibo solidarioa egiteko garaia da. Solidaritatea jarrera iraunkorra izan dadin bizitzan", amaitu zuen.



Aberri Eguna ospatu zuen Irungo EAJ-PNVk Pazko igandean

Joan den apirilaren 20an, Pazko igandean, Aberri Eguna ospatu zuen Irungo EAJ-PNVk. Hainbat ekintza antolatu zituzten jeltzaleek egun horretarako: goizean, Meza Nagusia eskaini zen Junkaleko Andra Mariaren elizan; eguerdian, Batzoki aurrean, Ikurrinaren igoera aurten Juanjo Izagirre alderdikideari egokitu zitzaion ohorea; egin zen, Eusko Abendadearen Ereserkia abestu zen, bi dantzarik Aureskua dantzatu zuten eta ekitaldi nagusiari amaiera emateko, Agur Jaunak abestu zuten bertaratutakoek. Hainbat alderdikide eta alderdizale gerturatu ziren kale Nagusira, baita Jean Telletxea, Europako hauteskundeetarako iparraldeko EAJ-PNVko hautagaia ere. Jai giroan ospatu zuten eguna, Batzokiko elkarte gastronomikoan bazkari herrikoi batekin.

Ba al zenekien...

Etekin mediatikoa bilatzeko alkatearen grina

Ez da Santano jaunak kreditu aldaketa bat Udalbatzara eramateko orduan erakutsitako jarrera salatzen dugun lehenengo aldia. Berriro ere, udal gobernuaren proposamen itxi baten aurrean aurkitzen gara, aldaketak egiteko, zein esku-hartze lehenetsi behar diren eta erabilgarri dugun dirua zertara bideratu dezakegun eztabaidatzeko eta negoziatzeko aukerarik gabe. Halaber, alkateak ez du gardentasunez jokatzeko: gobernu sozialistak Udalbatzara eramango duen diru-kopurua baino gehiago dauka erabilgarri Irungo Udalak; alkateak, jada, aurreratu du maiatzako Osoko Bilkurara beste kreditu aldaketa bat eramateko duen asmoa. Eta, ez... ez da zuhurtzia. Dosifikazio honek alkateak bilatzen duen etekin mediatikoari besterik ez dio erantzuten.

Korporazioak ekarpenak egiteko eta esku-hartzeak egoki lehenesteko informazio guztia esku artean edukitzea merezi du.